


2007. urtean % 11 gehitu zen gizarte zerbitzuetarako gastua

65 urteko eta gehiagoko biztanleen % 10ak gizarte zerbitzu espezializatuen arreta jaso zuen

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko gizarte zerbitzuen gastua 1.616 milioi eurokoa izan zen 2007. urtean, aurreko urtean baino % 11 gehiago eta urte horretan ekonomiak izan zuen hazkuntetik (% 6,7) lau puntu baino gehiagorekin. EAEko BPGaren % 2,45 izan zen gastua. Biztanle bakoitzeko 753 euroko gastua egin zen, eta horietatik 530 euro funts publikoetakoak izan ziren.

Lurraldeka, gastuak antzeko igoera izan zuen: Araban % 10 gehitu zen eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 11. Biztanleko, Araban eman zen gasturik handiena: biztanle bakoitzeko 840 euro. Bizkaian, aldiz, gastua 741 eurokoa izan zen eta Gipuzkoan 733 eurokoa.

Grafikoa: gizarte zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera biztanle bakoitzeko



Iturria: EUSTAT

Herri administrazioek 1.139 milioi euroko ekarpena egin zuten (gastuaren % 70), eta sektore pribatuak gainerako % 30 eman zuen. Gastatu ziren lau euroetatik bat (409 milioi euro) erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenten bidez finantzatu zen. Guztirako horretatik, egoitzetan dauden adinekoek 177 milioi euroko ekarpena egin zuten; hau da, zentro horietako gastu arruntaren % 45 horiena izan zen.

Sektore honetan % 4,1 emakume landuneri eman zitzairen zuzenean lana

Gizarte zerbitzuetan, oro har, 24.203 pertsonari eman zitzaion zuzenean lana (landun guztien % 2,5ari, alegia). Lana lortu zutenen % 69 emakumezkoak izan ziren, emakume landunen % 4,1. Baina kopuru hori handiagoa da zuzeneko arreta emateko eta etxez etxeko laguntzarako azpikontratatzaren diren langileak kontuan hartuz gero; lanaldi osoan 5.800 pertsona azpikontratatu ziren. 2007. urtean 18.762 pertsonak lan egin zuten gizarte zerbitzuetan, eskuzabaltasunez; guztira lanaldi osoan 1.682 pertsona gehiago izan zen.

1. taula: Magnitude nagusien bilakaera

	2006	2007	Δ% 07/06
Gastua (mila euro)	1.457.289	1.616.431	10,9
- Gastu arruntak	1.082.718	1.212.025	11,9
- Familietarako transferentziak	308.074	332.250	7,8
- Kapital-gastuak	66.496	72.155	8,5
Gastua/Biztanleko (euro)	684,4	752,6	10,0
Gastua/BPG (%)	2,4	2,5	-
Finantzaketa			
- Finantzaketa publikoa	1.035.909	1.139.451	10,0
- Finantzaketa pribatua	421.380	476.980	13,2
Giza baliabideak			
Langileak guztira	41.640	42.965	3,2
- Bertako langileak	22.985	24.203	5,3
- Borondatezkoak	18.655	18.762	0,6
Material-baliabideak			
- Izakunde-kop.	1.320	1.348	2,1
- Zentro-kop.	2.632	2.783	5,7
- Egoitza-kop.	772	897	16,2
- Egoitza-plazak	22.143	23.563	6,4

Iturria: EUSTAT

Gizarte zerbitzu mota ezberdinen artean, oro har biztanle guztiei eta adinekoei emandako zerbitzuetara bideratu zen baliabide gehien; gastuaren % 66 hartu zuten bi esparru horiek.

Biztanle guztientzako baliabideen artean, kopuru eta bilakaera aldetik, familiei egindako transferentziak nabarmendu behar dira eta, horien artean, hauek: Oinarrizko Errentako (OE) programak, 174 milioi euroekin (+% 10) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), 41 milioi euroekin (+% 7). Bi programa horiek, hain zuzen, Euskal AEn biztanle bakoitzeko 100 euroko batez besteko gastua izan zuten. Gainera, Oinarrizko Errentak Bizkaian indar handia izan zuen, biztanle bakoitzeko 116 euroraino heldu baitzen.

Gizarte zerbitzu espezializatuek 65 urteko eta gehiagoko biztanleen % 10ari eman zioten arreta

Adinekoentzako gizarte zerbitzuetan egoitza zerbitzuei, eguneko asistentzia-zentroei eta etxez etxeko laguntza zerbitzuei ematen zaie arreta gehien.

2007. urtean, egoitzetan 18.051 plaza izan ziren; beraz, 65 urteko eta hortik gorako adineko 100 pertsonatik 4,5ek plaza izan zuten. Azken urteetako joerari eutsiz, egoitzetako plaza kopurua gehitu egin zen: 1.200 gehiago izan zen (+% 7). Administrazioak plaza horien % 30 eskaini zuen zentro publikoetan eta antzeko ehunekoa (% 31) itundu zuen erakunde pribatuekin.

Eguneko asistentzia-zentroetan 3.475 plaza egon ziren (+% 8). Herri administrazioak plaza horien % 46 zentro publikoetatik eskaini zuen eta % 41 zentro pribatuekin itunak eginez.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuak (ELZ) 21.528 adinekori eman zion arreta hauen etxeetan (65 urteko eta gehiagoko biztanleen % 5,4ari).

2006. urtearen aldean, ELZk % 14 erabiltzaile gehiago izan zuen baina arreta emateko ordu kopurua motelago gehitu zen (+% 8). Zerbitzu honek 77,2 milioi euroko gastua izan zuen (aurreko urtean baino % 12 gehiago); beraz, urtean, batez beste, erabiltzaile bakoitzeko 3.231 euroko gastua egin zen eta gastu gehiena (% 90) sektore publikoak finantzatu zuen.

2. taula: gastuaren bilakaera eta banaketa, biztanleen arabera

	2006	2007	Δ% 07/06
Gastua (mila euro uneko)	1.457.289	1.616.431	10,9
Biztanleria oro har	557.930	580.808	4,1
- Familietarako transferentziak	304.799	328.716	7,8
Haur-Gazteak	42.494	69.532	63,6
- Egoitzak	30.322	46.093	52,0
Zaharrak	438.188	493.680	12,7
- Egoitzak	377.813	424.471	12,3
Ezgaituak	339.511	384.213	13,2
- Egoitzak	53.815	66.896	24,3
- Lanbide-zentroak eta EZB (1)	219.391	248.631	13,3
Emakumeak	9.941	11.137	12,0
Zokoratuak	69.225	77.060	11,3

(1) Enplegu-zentro bereziak

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel.: +34-945-01 75 99 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp